



2023rako aurrekontuak onartu dira, 26,9 milioi eurokoak, izaera sozial nabarmenarekin, Andoaingo herritarren beharretan oinarrituta

- **Funtsezko hiru ezaugarri nabarmendu daitezke: kalitatezko zerbitzu publikoak indartzen dituzten gizarte-aurrekontuak dira, herritarren beharretara egokituak eta jasangarriak, 2022ko aurrekontuko 24,6 M€-ak nabarmen hobetzen dituztenak.**
- **Bigarren urtez jarrian 250.000 euro jaso dira herritarrek aurrekontu parte-hartzaileen prozesuan hautatutako proiektuak garatzeko.**

Udalbatzak, atzo arratsaldean egindako bilkuran, 2023rako Udal Aurrekontua onartu du, PSE-EEren eta EAJ-PNVren aldeko botoekin, koalizio gobernuaren laugarren aurrekontu proiektuari argi berdea emanaz. Urtea amaitu baino lehen onartu izanak ahalbidetuko du Andoainek 2023aren hasieratik 26,9 milioi euroko aurrekontu-zuzkidura izatea, izaera sozial nabarmenarekin. 2022ko aurrekontuetan jasotzen diren ia 27 milioi euroek errekor bat ezartzen dute horrela, historiako kopuru handienetako bat, Andoainek andoaindar guztien etorkizunaren eta ongizatearen aldeko apustua areagotuko duena.

Kontuak onartuta, Maider Lainez Andoaingo alkatea eta Mari Jose Izagirre alkateordea, gobernu taldearen babesarekin, pozik agertu dira aurrekontuen onarpenarekin.

Lainezek aurrekontuen funtsezko hiru ezaugarri nabarmendu ditu: “kalitatezko zerbitzu publikoak indartzen dituzten gizarte-aurrekontuak dira, herritarren beharretara egokituak eta jasangarriak, eta herritarrek parte-hartze prozesuan aukeratutako proiektuak ere barne hartzen dituzte”.

“Izaera sozial nabarmena duten aurrekontuak dira, kalitatezko zerbitzu publikoak eskaintzera bideratuta daudenak, eta herritarrak eta haien ongizatea gure politika guztien erdigunean daude, inor atzean gera ez dadin. Gure ekintza guztiek herritarrei zerbitzu hobea eta hurbilagoa ematera bideratuta jarraituko dute”. 2023an, “tokiko eragileek antolatzen dituzten jarduerak bultzatzen jarraituko dugu. Andoaingo oso udalerrira aktiboa da, bertako elkarten eta gizarte-sarearen lanari esker. Hori dela eta, elkarteek jasotzen dituzten laguntzak handitu egin ditugu. Eta inbertsio-apustu garrantzitsua egiten jarraituko dugu, Andoaingo gizarte eta lehiakortasuna suspertzeko”.

Bestalde, Izagirrek adierazi du “errekoreko zenbakiak dituen inbertsio-aurrekontua dela, ia 27 milioi eurotako mugara gerturatuz” eta honek Udalarri “etorkizunari eraginkortasun handiagoz aurre egiteko aukera emango diona, pandemiak bizkortu dituen etorkizuneko erronka eta eraldaketa berrietara egokituz”. Gobernuaren ekintza 3 ardatz estrategikotan laburbildu du: “eraldaketa berdea edo



Andoaingo Udala

ingurumenekoa, udal kontsumoak murrizteko edo natura-ondarea balioan jartzeko inbertsioak eginez; eraldaketa ekonomikoa eta digitalizazioa, bai udal-ekipamenduetan, bai enpresa-sarean, bai tokiko merkataritzan; eta azkenik, soziala edo soziosanitarioa ere, kalitatezko zerbitzu publikoak indartuz, haurtzarotik hasi eta adinekoetaraino”.

AURREKONTUA ZENBAKITAN

Aurrekontua ia 27M€-tako mugara gerturatzen da, nagusiki Gipuzkoako Foru Aldundiak banatzen duen funtsaren zenbatekoak izan duen igoeragatik, 11,9M€-koa izango baita, eta Ama Kandidaren eta Kaletxikiren hirigintza-aprobetxamenduek eragindako diru-sarrearen aurreikuspenagatik.

Zifra orokorretan eta arloka xehatuta, hau da Andoaingo 2023ko Aurrekontuen banaketa orokorra: Langileria Sailak 9,7 M€ ditu (aurrekontu osoaren % 35,8), Zerbitzu sailak 5,2 M€ (%19,4), Hirigintza sailak 2,1 M€ (%8), Gizarte Zerbitzuen sailak 2,5 M€ (%9,5), Hezkuntza eta Kultura sailak 1,9 M€ (%6,9), Euskara sailak 0,5 M€ (%1,8), Ogasun sailak 1 M€ (%3,8), Ekonomia Sustapen, Enplegu eta Gazteria sailak 2 M€ (%7,6), Berdintasun sailak 0,3€ (%1,1) eta Jarduera Fisiko eta Kirol sailak 1,6 M€ (%6).

Langileria Sailean, udal langileei %2ko igoera aurreikusten zaie, ATARIA herritarrentzako arreta-zerbitzua astean behin arratsaldez irekitzea, 35.000 euroko hasierako partida, udaleko ekipo eta sare informatikoak modernizatzen jarraitzeko, eta 40.000 euro bideratzen dira udal liburutegia larunbat eta igande goizetan irekitzeko (herritarrek aurrekontu parte-hartzaileetan hautatutako proiektua).

Zerbitzu Sailari dagokionez, 519.000€ gordeko dira parkeak eta lorategiak mantentzeko. 107.000€ aurreikusi dira landa-bideak eta seinaleak mantentzeko. Azkenik, 15.000 euro bideratuko dira zebrabideak hobetzeko aurrekontu parte-hartzaileen partidara; segurtasuna hobetzeko eta arriskugarritasuna murrizteko formulak aztertuko dira, pasabideetako argiteria, pintaketa, kaptadoreak eta abarren bidez.

Hirigintza Sailean, 1,1M€-ko inbertsiorik garrantzitsuena Ambrosia Olabide eraikinaren kanpo azala eta fatxada eraberritzea izango da, Udala egiten ari den jasangarritasun energetikoko ekintzen barruan. "Azterlanak eta proiektuak" partidaren barruan, 75.000€ erabiliko dira Algodonera ingurua hobetzeko proiektu bat idazteko, eta 300.000€ liburutegi berria eraikitzeko idazketa proiektua eta azterlanak martxan jartzeko. Duela gutxi, liburutegi berriaren kokapenari buruzko alternatiba-azterlana amaitu da, eta datozen asteetan zehaztuko da behin betiko kokalekua. Halaber, 2023an 60.000 euroko dirulaguntza ildoari eutsiko diogu, eraginkortasun energetikoa hobetuko duten etxebizitzetako obrak finantzatzeko, aurtan izan duten arrakasta ikusita. Era berean, 20.000€ erabiliko dira Leizaran ibaian bainatzeko guneak egokitze. Eta, aurrekontu parte-hartzaileetan herritarrek babestutako proiektuen



Andoaingo Udala

barruan, 60.000€ bideratuko dira oinezkoentzako ibilbide irisgarriak sortzeko proiektu bat egiteko, Olagain auzoa eta Joakin Larreta kalea Kaleberriarekin lotuko dituztenak, 60.000€ Ondarreta kalea berrurbanizatzeko proiekturako eta 60.000€ Andoaingo bizikleta-bideen Plan Berezia egiteko.

Gizarte Zerbitzuen sailean, % 7 handitu dira AGISak, diru-sarrerak bermatzeko laguntzak, 153.000€-raino, gure udalerriko pertsona ahulenen beharrak asetzeko. Eskola-materialerako laguntzak (20.000 €) eta eskolaz kanpoko laguntzak (18.000 €) ere indartu dira. Halaber, presentzia berezia izango dute nahitaezko bakardadea saihesteko abian jarriko diren programa berriek, Josefina Rubio Tio andreak jasotako funtsari esker, eta horien berri emango dugu. Gainera, 25.000€ ematen dira haurrentzako programetarako, *Andoain Haurren Hiri Lagun* izendatzea ahalbidetuko diguten ekintzak egin ahal izateko.

Euskara Sailean, "Erabilera" partidaren barruan (70.000€), azpimarratzekoa da 2022an harrera ona izan duen "Parketarrak" zerbitzuaren jarraipena. Proiektu honen bidez, Andoaingo parke publikoetan euskararen erabilera bultzatu nahi da, aisialdian euskarazko jolasak sustatuz eta hurrek jolasteko erabiltzen duten hizkuntzan eraginez. Udalerriko ikastetxeetan euskara sustatzeko hitzarmenak ere txertatu dira. Gainera, herriko kirol klubekin batera, kirol ingurunean euskararen erabilera aztertzekeo prozesu bat martxan ipintzea aurreikusten da, kalean euskararen erabilerari buruz egin berri den azterketan oinarrituta.

Hezkuntza eta Kultura sailean nabarmentzen da 420.000€-tako partida programaziorako, eta bertan, Basteroko eskaintzaz gain, Rock jaialdia, Kale Giroan edo Ikuszirkus ere sartzen dira, besteak beste. Kultura ikastaroak lehen hiruhilekoan lizitatzea aurreikusten da, egungo eskaintza mantenduz eta aukera berriekin modernizatzeko asmoarekin, behar berrietara egokituz. Basteroko zerbitzu teknikoekin kontratuari dagokion partida 340.000€-rekin handitu da, udalaren behar guztiei erantzun ahal izateko. Halaber, kultura foroaren esparruan hasitako hausnarketaren ondorioz, udal laguntzak 240.000 eurotan eguneratu dira. Berrikuntza gisa, 22.000 euroko partida izendun bat txertatu da Iztuitza dorretxeari buruzko ondare- eta arkitektura-ikerketak hasteko. 2022an hasitako lizitazio ezberdinak udaberrirako osatuko dira, eta horien artean nabarmentzekoa da Andoaingo Erraldioen gomazko figuren bigarren bikotea.

Ekonomia Sustapen, Enplegu eta Gazteria Sailak SALKINekin duen hitzarmena berritzeko apustua egin du berriro, 124.000 euroko zuzkidurarekin. Horren bidez, elkarteari berari lagunduko zaio urteko agendan, eta 100.000 euro bideratuko dira tokiko merkataritzan eta ostalaritzan kontsumoa sustatzeko bonu-kanpaina berriak sustatzeko. 2023rako aurreikusitako eremuko inbertsio nagusietako bat Belabiko ludoteka berria martxan jartzea da; obrarako 312.774€-ko zuzkidura dago. Aurreko urtean bezala, Leitzarain bisitarien etxea udatik haratago irekitzeko apustua egiten jarraituko da, eta 107.000€



Andoaingo Udala

bideratuko dira horretarako. Gainera, hainbat inbertsio egingo dira Otietakoko eremuan, espazioa birnaturalizatzeko eta antolatzeko, 70.000 euroko aurrekontuarekin. Emakumeak birlaneratzeko proiektua ere gauzatuko da, 60.000€-ko aurrekontuarekin, proiektu hori aurrekontu parte-hartzaileen emaitza da.

Berdintasun Sailak orain arte garatu diren ildoak lantzen jarraituko du: mainstreaming lana, emakumearen parte-hartzea, jabeakuntza eskola, indarkeria matxistaren prebentzioa eta martxoaren 8a, ekainaren 28a eta azaroaren 25a, eta gure udalerrian zainketa sistema hobetzeko lanean jarraituko da. Emakumeen parte-hartzeari buruzko atalaren barruan, Andoaingo emakume-elkarteentzako 10.000 euroko dirulaguntza lerro bat martxan jarriko dela nabarmendu daiteke. Eta indarkeriaren biktimei arreta eta erreparazioa emateko atalean, 10.000 € erabiliko dira biktimei erreparazioa eskaini ahal izateko arreta hobetzeko.

Jarduera Fisikoa eta Kirola sailean, udalerrian kirol jarduerak bultzatzen jarraituko da. Nabarmenezkoa da begiraleen zerbitzua, sarbideak eta beste batzuk lehiaketara aterako direla, 922.162,74 euroko zenbatekoarekin. Eta 77.000€-ko partida hornitzen da igerilekuko iragazkiak eta ponpak aldatzeko. Kirol-kluben dirulaguntzei dagokien partida handitu egingo da, 103.000€-rekin hornituz. Bestalde, jakina denez, SD Euskalduna klubak bere mendeurrena beteko du 2023an, eta 50.000 euroko hitzarmena sinatuko da haiekin. Gainera, 14.000 €-ko hitzarmena sinatuko da Ondarreta ikastetxearekin, eskola-kirola sustatzeko, eta Street workout (10.000 €) aisialdi fisikorako gunea kokatzeko azterketa bat egingo da.

Andoain, 2022ko abenduak 23



Aprobados los Presupuestos para el 2023 que alcanzan los 26,9 millones de euros, con un marcado carácter social, centrado en las necesidades de la ciudadanía de Andoain

- **Destacar tres características fundamentales: se trata de unos presupuestos sociales que refuerzan los servicios públicos de calidad, adaptados a las necesidades de la ciudadanía y sostenibles, que mejoran notablemente los 24,6M€ del presupuesto de 2022.**
- **Por segundo año consecutivo, se incluyen 250.000 euros para desarrollar los proyectos seleccionados por la ciudadanía en el proceso de Presupuestos participativos.**

El pleno municipal, en la sesión celebrada ayer por la tarde, ha aprobado el Presupuesto Municipal para el año 2023 con los votos a favor de PSE-EE y EAJ-PNV, dando así luz verde al cuarto proyecto de presupuestos del gobierno de coalición. El hecho de haber sido aprobado antes de fin de año permitirá que Andoain cuente desde inicios del 2023, con una dotación presupuestaria total de 26,9 millones de euros con un marcado carácter social. Los casi 27 millones de euros de los Presupuestos 2022 establecen de esta manera una cifra récord, una de las más altas de la historia, con la que Andoain redoblará su apuesta por el futuro y el bienestar de todas y todos los andoaindarras.

Aprobadas las cuentas, la alcaldesa de Andoain Mainer Lainez y la teniente de alcalde Mari Jose Izagirre, arropadas por el equipo de gobierno, han mostrado su satisfacción por la aprobación de estos presupuestos.

Lainez ha destacado “tres características fundamentales de los presupuestos: son unos presupuestos sociales que refuerzan los servicios públicos de calidad, adaptados a las necesidades de la ciudadanía y sostenibles, en los que también están incluidos los proyectos elegidos por la ciudadanía en el proceso participativo”.

“Se trata de unos presupuestos con marcado carácter social, dirigidos a ofrecer servicios públicos de calidad, en los que la ciudadanía y su bienestar están en el centro de todas nuestras políticas, de forma que nadie se quede atrás. Todas nuestras acciones seguirán encaminadas a dar un mejor y más cercano servicio a la ciudadanía”. En este 2023, “vamos a seguir impulsando las actividades que organizan los agentes locales. Andoain es un municipio muy activo, gracias a la labor de sus asociaciones y de su tejido social, por lo que hemos aumentado las ayudas que reciben las



Andoaingo Udala

asociaciones". Y también "vamos a seguir realizando una importante apuesta inversora, enfocada a la reactivación social y competitiva de Andoain".

Por su parte, Izagirre ha señalado que se "trata de un presupuesto inversor de cifras record, llegando a rozar la barrera de 27 millones" que permitirán al Ayuntamiento "afrontar el futuro con mayor eficacia, adaptándose a los nuevos retos y nuevas transformaciones, que la pandemia ha acelerado". Ha sintetizado la acción de gobierno en 3 ejes estratégicos "la transformación verde o ambiental, con inversiones para reducir consumos o poner en valor el patrimonio natural; transformación de económica y la digitalización, tanto de la administración como el tejido empresarial y comercio local; así como la social o socio-sanitaria, reforzando unos servicios públicos de calidad, atendiendo desde la infancia hasta las personas mayores".

EL PRESUPUESTO EN CIFRAS

El presupuesto casi roza los 27M€ debido al incremento en la cuantía que reparte la Diputación Foral de Gipuzkoa, que será de 11,9M€ y la previsión de ingresos debidos a los aprovechamientos urbanísticos de Ama Kandida y Kaletxiki.

En cifras generales y desgranado por áreas, este es reparto general de los Presupuestos de 2023 de Andoain: El Departamento de Personal cuenta con 9,7 M € (35,8% del total), el de Servicios 5,2 M€ (19,4%), el de Urbanismo 2,1 M€ (8%), el de Servicios Sociales 2,5 M€ (9,5), el de Educación y Cultura 1,9 M€ (6,9%), el de Euskara 0,5 M€ (1,8%), el de Hacienda 1 M€ (3,8%), el de Promoción Económica, Empleo y Juventud 2 M€ (7,6%), el de Igualdad 0,3€ (1,1%) y el de Actividad Física y Deportes 1,6 M€ (6%).

En el departamento de **Personal**, se contempla una subida a las y los trabajadores del 2%, la apertura del servicio de atención ciudadana ATARIA una tarde a la semana, una partida inicial de 35.000€, para continuar modernizando los equipos y redes informáticas municipales y 40.000 euros destinados a la apertura de la biblioteca municipal las mañanas de los sábados y domingos (proyecto seleccionado por la ciudadanía en los presupuestos participativos).

En lo que se refiere al departamento de **Servicios**, se reservarán 519.000€, para el mantenimiento de parques y jardines. Se contemplan 107.000€ para mantenimiento de caminos rurales y señalética. Finalmente, 15.000 euros irán destinados a la partida de presupuestos participativos para la mejora de los pasos de cebra; estudiando fórmulas para mejorar la seguridad y disminuir la peligrosidad mediante alumbrado, pintado, captadores... en los pasos.

En el departamento de **Urbanismo**, la inversión más significativa de 1,1M€ será la reforma de la envolvente del edificio Ambrosia Olabide, dentro de las acciones de sostenibilidad energética que está llevando a cabo el Ayuntamiento. Dentro de la partida "Estudios y proyectos", se van a destinar



Andoaingo Udala

75.000€ para la redacción de un proyecto de mejora de la zona de la Algodonera y 300.000€ para la redacción del proyecto de construcción de la nueva biblioteca. Recientemente, se concluía el estudio de ubicaciones realizado sobre diferentes alternativas y en las próximas semanas se determinará el emplazamiento definitivo. Mantendremos también en 2023 la línea de subvenciones de 60.000€, para obras en viviendas que mejoren la eficiencia energética, viendo el éxito que han tenido este año. Asimismo, se destinan 20.000€, para acondicionar zonas de baño en el río Leizaran. Y, dentro de los proyectos apoyados por la ciudadanía en los presupuestos participativos, se van a destinar 60.000€ para la realización de un proyecto para la creación de itinerarios accesibles para peatones, que unan el barrio de Olagain y la calle Joakin Larreta con Kaleberria, 60.000€ para el proyecto de reurbanización de la calle Ondarreta y 60.000€ para la elaboración del Plan Especial de vías ciclistas de Andoain.

En el departamento de **Servicios Sociales**, se aumenta un 7% las AGIS, ayudas de garantía de ingresos sociales, hasta 153.000€ con las que se cubren las necesidades de las personas más vulnerables de nuestro municipio. Se refuerzan también las ayudas para material escolar hasta los 20.000€ y las ayudas extraescolares hasta los 18.000€. También van a tener especial presencia los programas nuevos que se van a poder poner en marcha para evitar la soledad no deseada, gracias a la herencia recibida por Doña Josefina Rubio Tio y de los cuales iremos informando. Además, dotamos con 25.000€ la partida de programas de infancia, para poder llevar a cabo acciones que nos permitan que Andoain sea designada como Ciudad Amiga de la Infancia.

En el departamento de **Euskara**, dentro de la partida de “Erabilera”, dotada de 70.000€, cabe destacar el seguimiento del servicio “Parketarrak” que tan buena acogida ha tenido el año 2022. Con este proyecto se pretende impulsar el uso del euskera en los parques públicos de Andoain, fomentando así los juegos en euskara en el tiempo libre e influyendo de esta manera en el idioma que los niños emplean a la hora de jugar. Se incluyen también los convenios para la promoción lingüística del euskera en los centros educativos del municipio. Además, se pretende iniciar conjuntamente con los clubs deportivos del pueblo, un proceso de análisis del uso del euskera en el entorno deportivo, basado en el reciente estudio de uso del euskera en la calle.

El departamento de **Educación y Cultura** destacar que se mantienen 420.000€ para programación, donde además de la oferta de Bastero se integran entre otros el festival de Rock, Kale Giroan o Ikuszirkus. Se prevé que los cursillos de cultura se liciten en el primer trimestre, completando la oferta actual con una oferta modernizada y que se adapte a las nuevas necesidades. Se ha incrementado la partida relativa al contrato de servicios técnicos de Bastero con 340.000€, para poder atender la totalidad de las necesidades municipales. Asimismo, la reflexión iniciada en el marco de “kultura foroa”, hace que las ayudas municipales a las asociaciones culturales y comisiones de fiestas se actualicen por un importe global de 240.000€. Como novedad, se contempla una partida nominativa de 22.000€ para iniciar los estudios patrimoniales y arquitectónicos sobre la Casa Torre Iztuitza. Las



Andoaingo Udala

diferentes licitaciones iniciadas en 2022 se completarán para primavera, entre los que destaca la segunda pareja de figuras de goma de los Gigantes de Andoain.

El departamento de **Promoción económica, Empleo y Juventud** apostará de nuevo, con una dotación de 124.000€ por renovar el convenio con SALKIN, mediante el cual se ayudará a la propia asociación en su agenda anual y se destinarán 100.000 euros para promover nuevas campañas de bonos para incentivar el consumo en el comercio y la hostelería local. Una de las principales inversiones del área previsto para el 2023 es la puesta en servicio de la nueva Ludoteca de Belabi; se cuenta con una dotación de 312.774€ para la obra. Al igual que se hizo en el año anterior, se seguirá apostando por la apertura del “Leitzaran bisitarien etxea”, fuera del periodo estival, destinando para ello 107.000€. Además, se realizarán diferentes inversiones en la zona de Otieta para la renaturalización y organización del espacio con un presupuesto de 70.000 euros. Se llevará a cabo también el proyecto para la reinserción laboral de las mujeres, con un presupuesto de 60.000€, proyecto resultante de los presupuestos participativos.

Desde el departamento de **Igualdad**, se va a continuar trabajando en las líneas que se han desarrollado hasta ahora, trabajo de mainstreaming, participación de la mujer, escuela de empoderamiento, prevención de violencia machista y fechas señaladas como 8 de marzo, 28 de junio y 25 de noviembre y seguiremos trabajando para mejorar el sistema de cuidados en nuestro municipio. Nos gustaría destacar, dentro del apartado de participación de la mujer, la puesta en marcha de una línea de subvenciones de 10.000€, para asociaciones de mujeres en Andoain. Y en el apartado de atención y reparación de víctimas de violencia, se van a destinar 10.000€ para mejorar la atención reparadora a las víctimas.

En el departamento de **Actividad Física y Deporte**, seguiremos impulsando la realización de actividades deportivas en nuestro municipio. Destacar que se va a sacar a concurso el servicio de monitores, accesos y otros con un importe de 922.162,74€. Y que dotamos con una partida de 77.000€, para el cambio de filtros y bombas de la piscina. Se va a aumentar la partida correspondiente a subvenciones a los clubs deportivos, dotándola con un importe de 103.000€. Por otro lado, como es sabido, en el 2023 el club SD Euskalduna cumple su centenario, por lo que se va a firmar un convenio con ellos por importe de 50.000€. Además, se va a firmar un convenio por importe de 14.000€ con el colegio Ondarreta para el impulso del deporte escolar y se va a realizar un estudio para la ubicación de una zona de esparcimiento físico Street workout (10.000€).

Andoain, 23 de diciembre de 2022